

**SAIO KLINIKO OROKORRA – BASURTUKO UNIBERTSITATE OSPITALEA**  
**PSIKIATRIA ZERBITZUA**

**HIZLARIA: Gonzalo Mancebo Fernández DK.**

**MODERATZAILEA: Iñaki Kerexeta Lizeaga DK.**

**2020ko martxoaren 13AN, 8:15TAN. GORBEIA EKITALDI-ARETOAN (GOBERNU PABILOIA)**

**KASU KLINIKOA**

Gaur egun 17 urte dituen nerabe baten kasua aurkeztuko dugu. Bere aurrekarien artean, azpimarragarrienak hurrengoak dira: 14 urterekin gogoraten ez duen kontzientzia mailaren jaitsiera iragankorra jasan zuen. Momentu hartako araketa eta froga osagarrietan ez zen aldaketa esanguratsurik azaldu (EEG eta RM). Urtebete pasa ostean, gau ikarak, loaren paralisia, entzumenezko haluzinazioak, kataplexia partziala eta egunean zeharreko logurea bezalako sintomak azaldu zituen. 16 urte zituela berriz, bere bururaz beste egiteko ideiez gain, oldarkortasun eta tratamendu eran jarritako psikoestimulatzailerekin okertu ziren eldarniozko ideiekin hasi zen. Egoera kliniko horren ondorioz Haur eta Nerabeen Psikiatria unitatean bi ospitaleratze izan zituelarik.

Gaixoaren klinikan eta egindako froga osagarri guztien normaltasunean oinarrituz, gaitz psikiatrikoek batera izan ditzaketen nahasmen organiko ezberdinen diagnosi eta tratamendu egokienaz eztabaidatzea da helburu saio honetan.